



Prensa oharra

EROSKI-K ETA IDIAZABAL SOR MARKAK HITZARMEN BAT SINATU DUTE SOR MARKAKO GAZTAREN GARAPENA INDARTZEKO

- **Akordioaren jatorria Eusko Jaurlaritzarekin eta INTIA-Reyno Gourmet Nafarroako Gobernuako erakunde publikoarekin sinatutako hitzarmenaren haritik dator, nekazaritzako elikagaien industriaren ekoizpen ehuna bere osoan garatzeko**
- **Idiazabal Sor Markaren ekoizpen osoaren %10 inguru merkaturatzen du EROSKI gaur egun**
- **Ekitaldian, Artzai Gazta aurkeztu dute, Idiazabal Sor Markaren gazta berria, eta EROSKI SeleQtia gourmet markarekin salduko dute**

Leioa, 2014ko maiatzaren 9a.- [EROSKI](#)k eta [Idiazabal Sor Markako Kontseilu Erregulatzailerak](#) lankidetzan akordio bat sinatu dute gaur, izendapen horretako gazta promozionatzeko eta garatzeko. Idiazabal Sor Markako Kontseilu Erregulatzailerak banatzaile batekin sinatzen duen lehen hitzarmena da; sektorearen garapenean eta iraunkortasunean lagundu nahi du produktu ziurtagiridun horren salmentarekin.

Elikagaien industrian, EROSKI hitzarmenak egiten ari da Eusko Jaurlaritzarekin eta INTIA-Reyno Gourmet Nafarroako Gobernuako erakunde publikoarekin, tokiko elikagaien industria eta ekoizpen ehunaren aniztasuna garatzeko. Eta gaurko akordio hau hitzarmen horien barnean sartzen da.

Honako hauek izenpetu dute hitzarmena, gaur goizean, EROSKIren Leioako Artea hipermerkatuan (Bizkaia): Jose Maria Ustarroz Idiazabal Sor Markaren Kontseilu Erregulatzailerako lehendakariak eta Asuncion Bastida EROSKIren zuzendari komertzialaren albokoak. Ekitaldian izan dira Bittor Oroz Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako sailburuordea, Peli Manterola Eusko Jaurlaritzaren Berrikuntzako eta Elikagaien Industriako zuzendaria, Iñaki Goñi INTIA-Reyno Gourmet Nafarroako Gobernuako erakunde publikoko zuzendaria eta Idiazabal Sor Markari atxikitako ekoizleak: Pablo Basterra Artzai Gaztako lehendakaria, Joxeba Beitia LurLaneko gerentea eta Mikel Aldanondo Aldanondo gazten gerentea. Haiek denek, bezeroekin eta gonbidatuekin batean, Idiazabal Sor Markako aurtengo gazta dastatzeko modua izan dute EROSKIIn.

Bittor Oroz Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako sailburuordeak hitza hartu duenean, hauxe esan du akordioaz: *"Lehen sektore profesional, lehiakor eta estrategiko baten alde egiten ari garen apustuaren parte da. Horrelako ekimenak*

EROSKI

Komunikazio Zuzendaritza Korporatiboa
OSCAR GONZALEZ URIARTE

Tel: 609 386 514

comunicacion@eroski.es

EROSKI – OFICINA DE PRENSA CONSEJEROS DEL NORTE

ZIORTZA BERISTAIN
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

www.eroski.es > [Notas de prensa](#)
www.consumer.es



oso garrantzitsuak dira Euskadiko elikagaien ekoizpena garatzeko, bultzatzeko eta merkaturatzeko”.

Hona zer esan duen, berriz, Iñaki Goñik, Nafarroako Gobernuko INTIA-Reyno Gourmet erakunde publikoko zuzendariak: *“Esanguratsutzat jotzen dugu tokiko hornitzaileen alde EROSKI Nafarroan egiten ari den ahalegina; bereziki, kalitate ziurtagiri bat duten produktu horiek guztiak bereizteko interesen alde. Esanguratsua da, halaber, Nafarroako produktuei dagokien zer-nolako eskaintza egiten zaien kontsumitzaileei, nolako balioa ematen dion tokikoari eguneroko erosketan”.*

2013an, 1.000 tona Idiazabal Sor Markako gazta baino gehiago ekoitzi zen. Hona zer nabarmendu duen Jose Maria Ustarrozek, Kontseilu Erregulatzailleko lehendakariak: *“Gaur martxan jarri dugun lankidetzaren onuragarria izango da bi aldeentzat; izan ere, Idiazabal markako gaztak EROSKIren saltokietan promozionatuta eta salduta, ezagutarazi egingo ditugu produktuen ezaugarriak, ustiapen iraunkorreko sistemak, ingurunearekin duten lotura eta, besteak beste, lurraldearen, paisaiaren eta etnografiaren garapenean duen eragina”.*

Honela hitz egin du Asun Bastida EROSKIko zuzendari komertzialaren albokoak: *“Bai EROSKI bai Idiazabal Sor Markaren Kontseilu Erregulatzailleak interes berdina dugu Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako produktuak promozionatzeko eta garatzeko, eta kontsumitzaileen interesa babesteko, tokiko produktu kalitatezkoak eskatzen ari baita eroslea”.* Gaur sinatutako hitzarmenarekin, *“Idiazabal Sor Markako produktuak bultzatuko ditugu EROSKIren dendetan; gainera, haien balio gastronomikoak eta kulturalak ezagutaraziko ditugu, eta tokiko ekonomia garatzen lagunduko dugu. Konpromisoa hartzen dugu Idiazabal Sor Markako kalitatea ikusgarri egiteko, eta kanpaina espezifikoetan erakutsiko diogu kontsumitzaileari produktu horiek balioesten, gure saltokietan ekitaldiak eginez, dastaketak eta eskaintzak; era berean, tokiko ekonomian lagunduko dugu”,* esan du.

Idiazabal Sor Markako gazten salmentari dagokionez, EROSKI bi milioi euro baino gehiago gastatu zituen 2013an, hau da, ekoizpen bolumen osoaren %10 inguru. *“EROSKI In, 30 ekoizlerekin baino gehiagorekin ditugu harreman komertzialak; gehienak enpresa ertainak eta txikiak dira, eta eskuz egiten dute Idiazabal gazta”,* aipatu du Bastidak.

Idiazabal Sor Markako EROSKI SeleQTia etxeko gazta marka berria – Artzai Gazta

Ekitaldian, Artzai Gaztak ekoitzitako Idiazabal Sor Markako etxeko gazta aurkeztu dute EROSKI, Idiazabal Sor Markako Kontseilu Erregulatzailleak eta Artzai Gazta

EROSKI

Komunikazio Zuzendaritza Korporatiboa
OSCAR GONZALEZ URIARTE

Tel: 609 386 514

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

ZIORTZA BERISTAIN
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

www.eroski.es > [Notas de prensa](#)
www.consumer.es



Idiazabal Sor Markako Artzain Ekoizleen Elkarteak. Gourmet marka propio bidez merkaturatuko du kooperatibak gazta: EROSKI SeleQtia. Maiatzera bitarte egingo dute produktu berria kontsumitzaileei ezagutarazteko kanpaina.

Aurkezpenean, honela mintzatu da Pablo Basterra Artzai Gaztako lehendakaria: *"Eskuz egindako gazta da, euskal eta nafar artzainen ardi latxa edo Karrantzako ardi esnearekin egina, eta eskuz eginda dagoelako da berezia. Idiazabal Sor Markaren zigilua du, eta, beraz, kalitate eta arau tekniko zehatzak gainditu ditu. Esan daiteke lehen mailako produktua dela, kalitate bermeduna".*

EROSKI SeleQtia

EROSKI SeleQtia marka propioaren barnean, mailarik goreneko produktuen aukeraketa bat sartzen da. Osagairik onenekin eginda daude, aldaera, arraza, jatorri, errezeta onenekin, eta metodo tradizionalekin eginda eta zainduta; zapore izugarrikoak dira, dastatzaile adituek bermatutakoak.

Idiazabal Sor Marka

Idiazabal Sor Marka 1987an eratu zuten, ardi latxaren eta Karrantzakoaren artzaina eta Idiazabalgo egiazko gaztaren ekoizlea defendatzeko eta, horrela, kontsumitzaileari jatorria eta kalitatea bermatzeko.

Gaur egun, 400 bat etxalde eta 123 gaztandegi daude sor-markaren barnean; markaren bitartez, kalitate handiko gazta egiten dela bermatzen da, behar bezala ondua edo findua dagoela.

EROSKI

Komunikazio Zuzendaritza Korporatiboa
OSCAR GONZALEZ URIARTE

Tel: 609 386 514

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

ZIORTZA BERISTAIN
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

www.eroski.es > [Notas de prensa](#)
www.consumer.es